



Ispilutik

Maddi Amaier Tejedor Lasa

EUSKARA NARRAZIOA 14-16 URTE

1. Saria

Zure ohea dut aurrean. Maindire zuri eta leunak ditu; bakean murgilarazten zaituzten horietakoak. Burukoa aldiz, larrosa kolorekoa. Busti egiten duzu gauean, lotan, ahotik adurra darizunean eta zure arnas lasaia entzuten dudanean. Betidanik Loti Ederra bezalakoak zarela pentsatu dut, lo besterik ez baituzu egiten. Nire ezkerrean mahaia dago, liburuz beteta baita aulkia ere, baina hau arropaz gainezka, itxi ezin den maleta bat bailitzan. Horman lagunekin egindako argazkiak eta zure hamargarren urtebetetzean amonak idatzitako eskutitza zintzilik, gauero irakurri eta muxu ematen diozu, beti zurekin dagoela baitakizu, baina saihetsezin bihurtu zaizu ia gauero betileak eta masailak bustitzea.

Askotan begiratzen didazu, etxetik ateratzeaz zaudenean, goizero gosaldutako baino lehenago burukoak barreiatu dizkizun iletxoak apaintzean edo lo egin baino lehenago pijama janztean. Nola handitu zaren ikusteak betidanik liluratu nau eta zaila egiten zait nerabe bilakatu zarela eta hamasei urtez egunsentiak nola esnatzen zaituen egunero ikusi dudala sinestea. Betidanik izan zara neska zoriontsua, irribarre batekin nire aurrean dantza egin izan duen horietakoa. Dena den, zure begien disdira desagertuz joan da, eguerdiko eguzkiaren argi bizia hodei batek estaliko balu bezala. Gauean etengabe mugitzen zara, loa ezin hartuz. Haizeak zure irribarrea eraman du eta basamortuko lore lehor eta ximeldu baten antzera sentitzen zara. Hatz puntak busti egiten dituzu ia egunero, gero eta ohikoagoak diren malkoak lehortzen dituzunean. Eskuak dardarka izaten dituzu orrazia zure ile leunetik pasatzean eta goizero zure begi apal eta ilunek begiratzen didatenean. Aurpegi zurbil eta goibela. Eskuak egunetik egunera finagoak. Saihetsak nabariak dira zure azalean, bultza egin nahi balute bezala. Biziki gustatzen zaizkizun praka horiek handiago gelditzen zaizkizu eta gauean datozkizun goragaleak nire amesgaizto bihurtu dira. Maiz begiratzen diogu elkarri, begietara. Baina ez da txikitan ematen zenizkidan begirada goxo horien antzekoa, bertan zure arimak duen hutsunea ikus dezaket eta. Kezka aurpegiak ikusten ditut etxean, denek nik ikusten dudana ikusten dute, ziur nago. Zer duzun jakin arren onartu ezinik zabilta. Nire bihotza zimurtuz doa nire aurrean jarri eta



zure gorputza ukitzen duzunean, ezagutuko ez bazenu bezala, ez dira txikitan amak logelara zeto-
rrenean aurpegian egiten zizkizun eta pozten zintuzten laztanak bezalakoak. Bitartean malkoek zure
betileak bustitzen dihardute.

Egunero altxatzea geroz eta zailago egiten zaizula nabari dut, amorrus betetzen nau ezer egin ahal
ez izateak. Besarka zintzaketa baina harrapaturik nago, zerbaitek soka batekin gerritik helduko ba-
nindu bezala. Mina erraietaraino iristen zait eta kezka eta gauetan komunitate datorkidan goitika
kiratsak barneak nahasten dizkit. Zure begiradak laguntza eskatzen jarraitzen du, hitzen beharrik
gabe. Zure irribarreak faltan somatzen ditut. Gorrotoz begiratzen didazu orain eta beldurra hartu di-
dazula ere esango nuke. Zure begiek jada ez dute malko gehiago isuritzeko indarrik. Gelditu zaizun
bakarra amonaren eskutitza izan da, gauero muxukatzen duzun hura, loak hartu ezin zaituenean
hartzen duzu eta hitz guztiak buruz badakizkizu ere, etengabe irakurtzen duzu, lehenengo aldia
bailitza.

Baina gaur zerbait nabari dut ezberdin, logela hutsik dago. Ez zara lotara etorri. Zure hatzak berriro
malkoz ez direla bustiko jakin dut. Zure bakea somatu dut bat-batean, betirako bakea. Zure burukoa
lehor dago eta amonaren eskutitza muxu eske geratu da. Hemendik aurrera amona berak irakurriko
dizu hainbeste maite duzun gutuna eta ez naiz zure isla gehiagotan izanen.